

GURASOEN BABESA UMEEN KIROL

PRAKTIKAN

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Millan Ibirika, Aritz.

ZUZENDARIA: Etxeazarra Escudero, Ibon.

2018

LABURPENA

Ikerketa honen helburua ume kirolariek gurasoengandik jasotzen duten babesaren aztertzea da. Babesa 5 faktoren arabera kuantifikatzen da: sexuaren arabera, adinaren arabera, kirol motaren arabera, praktikatzen den testuinguruaren arabera eta praktikatzen den maiztasunaren arabera. Bertan, 9-11 urteko 95 ikasleek parte hartu zuten, denak Ugao LHI-n ikasten zutelarik. Emaitzetan ez dira ia desberdintasunik aurkitu aurretik aipatu ditugun faktoreen arabera. Hala ere, amarengandik jasotzen duten babesaren hainbat desberdintasun esanguratsu ondoriozta daitezke esparru batzuetan.

Hitz gakoak

Gurasoak, kirola, babesaren, sexua, adina, kirol mota, testuingurua.

ABSTRACT

The purpose of the present research is to analyze the support that child athletes receive from their parents. The support is quantified in 5 factors: sex, age, sport type, context and frequency. In this research 95 students from 9 to 11 years old took part, all of them studied in Ugao LHI. The results do not indicate significant differences depending on the five factors, but we can find some significant differences on the support the students receive from their mothers.

Key words

Parents, sport, support, sex, age, sport type, context.

AURKIBIDEA

1. MARKO TEORIKOA	4
1.1 Kirola eta jarduera fisikoaren garrantzia haurtzaroan	4
1.2 Faktore sozializataileak umearen kirol-ibilbidean: gurasoen babes, giltzarri.	6
1.3 Gurasoen babesaren adierazleak	8
1.4 Gurasoen babesaren inguruko ikerkuntza	9
2. METODOA	11
2.1 Parte-hartzaileak	11
2.2 Tresnak.....	11
2.3 Prozedura.....	11
2.4 Analisi estatistikoa	12
3. EMAITZAK	13
4. EZTABAIDA	18
5. ONDORIOAK	19
6. MUGAK	21
7. IKERKUNTZAK ETORKIZUNEAN	22
8. ERREFERENTZIAK	23

1. MARKO TEORIKOA

1.1 Kirola eta jarduera fisikoaren garrantzia haurtzaroan

Kirolak gero eta paper garrantzitsuagoa du munduko biztanlerian eta gaur egun, oso presente dago pertsona ororen bizitzetan. Gainera, aldaketa sozialak izan dituen arren, fenomeno hau handituz doa denbora aurrera egin ahala. Kirola asko birmoldatu da azken boladan eta honen garapena lau dimentsiotan eman da: a) kirolari berriak, gazteek bakarrik ez dute jarduten; b) motibazio berriak; c) ikuspegi berriak eta d) antolaketa berria (García, 2006; Gutiérrez, 2004; Svoboda & Patriksson, 1996).

Gaur egun, kolokan jarri dira kirolak eta jarduera fisikoak bultzatzen dituzten baloreak etikoak direla. De Knopek (1993) adierazi zuen gazte-kirolak garaipena bilatzen duela gauza guztien gainetik, irabaztea faktore garrantzitsuena bait da. Gainera, indarkeriaren adierazpenak gero eta anitzagoak dira. Honen aurrean, ikerlari askok deritzote kirolak eta jarduera fisikoak beste helburu batzuk izan behar dituztela: osasuna bultzatu, sozializazioa sustatu eta jarrera eta baloreak irakatsi. Gazte kirola praktika ludiko bat baino gehiago izan behar da, zeinek pertsona bera garatzen lagundu behar du (Contreras, De la Torre, & Velázquez, 2001; Cruz, 2004; Gutiérrez, 2000; Sánchez, 2001).

Honekin batera, emozioak oso garrantzitsuak dira jarduera fisikoa praktikatzeko dugunean. Harrotasuna eta gozamina bezalako sentimenduek kirolariaren parte hartzea bermatzen dute. Aitzitik, sentimendu negatiboak izan ezker, kirolariaren kompetentzia kaltetua ikusiko da. Gainera, jakinmina eta erronka bezalako faktoreek sentimendu positiboa agertzeko aukerak handituko dituzte. Motibazioa kanpo faktoreekin lotuz gero, berriz, sentimendu negatiboak izateko aukerak agertuko dira, hala nola, frustrazioa, lotsa eta antsietatea (Brustad, 1988).

Gaur egun, oso ume gutxi betetzen dituzte MOEren (Munduko Osasun Erakundea) gomendioak. Erakunde honek jarduera fisikoa egunero 60 minutuz egitea gomendatzen du eta ikerketek diote 0-15 urteko umeen %65ak ez duela jarduera fisikorik praktikatzeko haien aisialdian. Gainera, kirolarien artean %33ak bakarrik betetzen ditue MOEren gomendioak. Zentzu honetan, gurasoak dira

umeengan eragin handiena duten faktore sozializataileak (Revuelta, Acebo & Zugazagoitia, 2017). Hori dela eta, lan honetan gurasoen eragina ikertuko da.

Batetik, jakin badakigu, umeek eta gazteek nagusiek baino jarduera fisiko gehiago praktikatzen dutela. Hala ere, azkeneko urteetan joera hori murriztu egin da eta umeen praktika maila asko murriztu da. Gaur egun, adin txikikoetan ematen den sedentarismo maila oso handia da (Ara et al., 2006). Gainera, sexuaren arabera aldaera handia dago ere, izan ere, emakumezkoek lehenago alboratzen dute jarduera fisikoa gizonezkoek baino (Mendoza, 2000).

Bestetik, jarduera fisikoaren onurak oso ondo frogatuta daude eta umeen praktika eskasa arduratzeko kontua da (Hamlin, 2003). Era honetan, inguru sozialak eragin handia du, gurasoek gehien bat. Hauek paper garrantzitsua dute seme-alaben hezkuntzan eta kirol ohituren sustatzean.

Gurasoen praktika mailak eta jarduera fisikoarekiko duten jarrerak, eragina dute seme-alaben kirol ohituretan (Kotan, Hergüner & Yaman, 2009). Hori dela eta, gaur egun, jarduera fisikoaren praktikaren bitartez lortu nahi den helburuetariko bat kirol ohitura eta jarrera positiboak bultzatzea da (Gutiérrez, Carratalá & Guzmán, 2010; Leo, Sánchez, P.A., Sánchez, D., Amado & García, 2009).

Jarduera fisikoa eskola garaian ez da bakarrik Gorputz Hezkuntzarekin lotzen. Eskola orduetatik kanpo antolatzen diren eskolaz kanpoko jarduera batzuk lotura handia dute jarduera fisikoarekin ere. Ekintza hauek kirol praktika sustatzen laguntzen dute 18 urte izan arte. Hori horrela, jarduera fisikoaren helburu hezitzaileak kirolariaren alor kognitiboa, soziala eta afektiboa garatzen lagunduko du (Fraile & De Diego, 2006). Seme-alabek jarduera fisiko mota desberdinak praktikatzea eta aukera desberdinak ematea lortu behar dute eta horretarako, giro aiposean hezitzen saiatu behar dira (Cordente, Garcia & Sillero, 2008).

Hau guztia kontuan izanik, gurasoen papera ezinbestekoa da seme-alabak jarduera fisikoa praktikatzea bultzatzerako orduan. Hala ere, umeak nagusiagoak egiten diren heinean gurasoen eragina murriztuz doala adierazi dute hipotesi batzuk eta lan honetan hori aztertuko da.

Oso garrantzitsua da gurasoek haien seme-alabek praktikatzen duten jarduera fisiko kopurua zenbatekoa den jakitea. Izan ere, askotan maila minimoak betetzen

dituztela pentsatzen dute kontrakoa izan arren. Gurasoek haien seme-alaben parte hartzea baldintzatzen dute, izan ere, jarduera fisikoarengan hartzen dituzten jarrera haiei transmititzen dizkiete (Reverter, Montero, Hernandez, Jove, & Coiduras , 2013).

1.2 Faktore sozializatzailerak umearen kirol-ibilbidean: gurasoen babesak, giltzarri.

Bide honetan, azkenengo 25 urteetan, kirol-psikologiaren atal bat gurasoen eta entrenatzaileen eragina ikertzerako bideratu da, izan ere, gurasoak umeen eta nerabeei eragile sozial handienak dira. Kirola eta jarduera fisikoaren alorrean, gurasoek funtsezko papera betetzen dute umeei jarduera bat ala bestea aukeratzeko orduan. Umeei haien nahiak eta motibazioak garatzen dituzten heinean, gurasoen jarrera indartzaileak jarduera fisikoaren praktika mantentzea bermatzen du. Gaur egun, gurasoak umeen kirol praktikan dena emanda ikustea gero eta ohikoagoa da, batzuetan hori baita familiaren ekintza nagusienetarikoa bat.

Gurasoen parte hartze jarrai eta handiaren eraginez, umeei eta nerabeei hobetze jarrerak transmititzeko orduan ondorio handia izan dezakete. Haien seme-alaben gaitasunei buruz dituzten iritziek ume kirolarien autopertzepzioetan eragin handia dute. Hori horrela, umeen pertzepzioak baldintzatuta egongo dira. Gainera, haien seme-alabek dituzten arrakasta itxaropenetan eragina izan nahi dute. Honekin batera, futbolari gazteek gurasoengandik informazio positiboa jasotzerakoan haien hautemate-kompetentzia handitzen dela ondorioztatu zuten eta Babkesek eta Weissek (1999).

Gurasoek, seme-alabek arrakasta izateko itxaropen handiak dituzten jardueretan praktikatzeko aukera gehiago ematen dizkiete. Hori dela eta, umeen autopertzepzio fisikoa gurasoengandik aktiboak izaten jarraitzeko jasotzen duten babesagatik baldintzatuta dago. Gainera, esan beharra dago, askotan gurasoen eta umeen helburuen artean oso lotura handia dagoela.

Gurasoen jarrerak eta portaerak umeen erantzun afektiboekin loturik daude kirol esparruan. Hau da, gurasoen jarrera positiboen bitartez ondorio onuragarriak emango dira umeeengan. Scanlanek eta Lewthwaitek (1986) kirola praktikatzekoan sortzen den umeen gozamenak eta gurasoen errendimendu-asetzeak elkarren artean harreman handia zutela ondorioztatu zuten. Honekin jarraituz, Brustadek (1988) denboraldi amaieran sortzen den gozamena eta gurasoen presio maila baxua

oso loturik daudela ondorioztatu zuen. Hau da, gurasoen babes positiboak eta presio maila baxuak umearen gozatzea dakar. Bestetik, gurasoen babes negatiboak ume kirolariaren estresarekin eta antsietatearekin loturik daude.

Aurrekoa ikusita argi dago gurasoen usteak, jarrerak eta portaerak oso garrantzitsuak direla umeek jarduera fisikoa praktikatzeko orduan.

Gurasoen esku-hartzeak, haien seme-alaben kirol praktikan eragin handia izan dezake ondorio afektiboetan. Hainbat ikerketek plazaratu dute gurasoen jarrerak umeen sentimenduetan eragina duela. Gainera, gurasoen itxaropenak bete ez dituela pentsatzen duen umeak, antsietate maila handia pairatuko du. Kirolari gazteen guraso eta entrenatzaile askok uste dute gaitasun pertsonalaren erakustea eta irabaztea dela gazte-kirolaren gozamenaren arrazoi nagusia (Brustad, 1988)

Hellstedtek (1995) familiak umearen dibertsioaren garapena erraztu behar duela aipatu zuen eta Power eta Woolgerrek (1994) gurasoen babesa umeen gozamenarekin positiboki erlazionatuta zegoela frogatu zuten. Gainera, guraso hauek umeen kirol praktika ikusten joatea pozik hartzen dutela frogatu zuten. Ikerketa batzuk gurasoen kirol itxaropenak, seme-alaben arrakasta eta kirolaren gozamena lotu dute (McElroy & Kirkendall, 1980; Scanlan & Lewthwaite, 1985). Aitzitik, beste ikerketa batzuk, gurasoen itxaropenek umeengan estresa eta antsietatea eragin ditzaketela frogatu dute (Brustad, 1988; Scanlan, Stein & Ravizza, 1991; Weiss, Weise, & Klint, 1989). Gurasoen papera aldatzen doa umea nagusitzen den heinean. Hasierako urteetan, lider papera hartzen dute gurasoek. Ondoren, aldiz, jarraitzaileak izatera pasatzen dira. Liderrak diren heinean, haien seme-alabak kirol desberdinak praktikatzera bultzatzen dituzte, haien gustukoa aurkitzeko asmoz. Jarraitzaileak direnean, berriz, seme-alabek egin duten hautua onartu eta hau babesten dute, ahalik eta babes gehiena eskainiz (Coté, 1999).

Umeen kirol jarrera positiboek (aurkariarekiko errespetua, araukiko errespetua eta parte hartze egokia) lotura zuzena izango dute gurasoen jarrera positiboekin. Bestetik, gurasoen jarrera negatiboek lotura zuzena izango dute seme-alaben kiroltasunik gabeko jarrerekin.

Hau da, jarrera egokiaren beharra ezinbestekoa da. Gainera, gurasoek haien seme-alabeei emandako babesak eta presio maila baxuak hauen jarrera positibo eta

etikoak eragin ditzakete. Horretarako, gurasoen formakuntza baztertu ezin daiteken aukera bat da (Leo et al, 2009).

Gurasoengandik babes handia jasotzen dutela uste duten kirolariek jarduera fisikoa maiztasun handiagoz praktikatzen dutela ondorioztatu zuen De la Torre-Cruzek (2017). Babes hori maila txikiago batean jasotzen dutela uste dutenek, aldiz, maiztasun txikiagoz praktikatzen dute. Emaidza hauek Timperio et al (2013) egindako ikerketan lortutakoekin bat egiten dute. Azken ikerketa honetan, etxean izandako kirol materiala eta gurasoen ekarpen ekonomikoa seme-alaben kirol praktikari, jarduera fisikoaren praktikarekin zuzenki proportzionalak direla ondorioztatu zuten. Hau da, gero eta kirol material gehiago izan edota ekarpen ekonomiko handiagoa egin, orduan eta jarduera fisiko gehiago praktikatuko dute seme-alabek (De la Torre-Cruz, 2017).

Amen jarrerak eta portaerak aitenak baino eragin handiago dute umeen inplikazioan (Revuelta et al, 2014). Revueltaren lan honetan aztertutako emaitzen arabera ondoriozta dezakegu gaur egun, oraindik, amek betetzen dituztela hezkuntza eta zaintzaren rolak. Seme-alabekin denbora gehiago pasatzen dute eta horregatik haien eragina handiagoa da seme-alaben jarreran eta portaeran aiten eragina baino. Hori horrela, jarduera fisikoa eta kirola praktikatzen eta bultzatzen dituen ama batek, balore horiek seme-alabei transmititu eta jarduera fisikoa praktikatzeko orduan erraztasunak emango dizkie (Revuelta et al, 2014).

1.3 Gurasoen babesaren adierazleak

Lan honetan gurasoen babesa aztertuko denez, aipatu beharra dago gazteek gurasoengandik 4 babes mota behar dituztela (Ries, 2009): a) Babes emozionala; b) Informazio bidezko babesa; c) Babes hautemangarria; d) Laguntasuna.

Babes emozionala, orokorrean, estres eta antsietate egoeratan, erosotasuna eta segurtasuna aurkitzeko asmoz, besteengana jotzeko gaitasuna da. Honen ondorioz, kompetentziaren eta autoestimuaeren zentzua indartzen da umearengan (Cutrona, & Russel, 1990). Umeek haien gaitasunen feedback positiboa jasotzerakoan, besteek haiengatik arduratzen direla ikusten dute eta horrek aurrekoarekin batera autoestimuaeren maila igotzeak dakar. Babes emozionalak lau dimentsio hartzen ditu:

- Egoera eta une negatiboetan (berri txarrak, lesioak, etab.)

- Egoera positiboetan (errendimendu ona, harreman ona taldekideekin, etab.)
- Ulertua izan dadin ematen den babesak (laguntza egoera nahasietan)
- Autoestimua indartzea (garrantzitsua sentiaraztea arrakasta albo batera utziz)

Informazio bidezko babesak gurasoek egoera nahasietan ematen duten informazioari egiten dio erreferentzia. Gurasoek haien seme-alabei teknika bat ikasteko ematen dizkieten aholkuak, adibidez. Kirol arloan, zuzenketa gehiegi edo gutxiegi egiten duten gurasoek, haien seme-alaben gozamenaren murriztea eragiten dute (Power & Woolger, 1994). Hala ere, desberdintasun handia egon behar da seme-alabak zuzentzea eta hauei aholkuak ematearen artean.

Babes hautemangarriak laguntza zehatz bati egiten dio erreferentzia (laguntza ekonomikoa materiala erosteko, seme-alabak eraman kirol instalakuntzetara, etab.) Babes mota hau, kirol motaren arabera izango da askotan. Hau da, kirolan erabilitako materialaren arabera, kirola praktikatzeko den instalakuntzen arabera, etab.). Ikerketa batzuetan seme-alaben parte hartzea eta motibazioa gurasoen maila sozioekonomikoarekin lotzen ez den arren (Overman, & Rao, 1981), beste batzuetan gurasoen maila sozioekonomikoa seme-alaben jardura fisiko kantitatearekin zuzenki loturik dago (Gottlieb, & Chen, 1985; Sephard, & Godin, 1986; Sunnegardh, Bratteby, & Sjolín, 1985).

Gurasoak eta seme-alabak, askotan, lagunak izan daitezke eta kirol ekitaldietara elkarrekin joan, jardura fisikoa elkarrekin praktikatu, etab. Gainera, laguntasun horrek umeari ekintza sozial eta aisialdi ekintza desberdinetan parte hartzea bultzatuko du (Cutrona, & Russel, 1990)

1.4 Gurasoen babesaren inguruko ikerkuntza

Bukatzeko, esan beharra dago azkeneko urteetan hainbat ikerketek baieztatu dutela inguru sozialaren eragina. Hau da, kirolari gazteak inguratzen duen esfera sozialak kirolariaren praktika motorra eta jarrerak baldintzatuko dituela sexu eta adinaren arabera (Beets et al., 2007; Fredricks & Eccles, 2005; Heitzler et al., 2006; King, Tergerson & Wilson, 2008; Latorre et al., 2009; Thompson, Humbert & Mirwald, 2003).

Hori horrela, familia giroak izugarrizko garrantzia du, ez bakarrik hastapenean (kirolaren aukeraketa eta praktika mota), baizik eta umeek jarduera fisikoa eta kirolarekin etorkizunean izango duten harremanan, loturan, jarraikortasunean eta jarreran (positiboa, negatiboa edo axolagabea). Influentzia hau praktika ereduaren imitazioek, hautemandako babesek eta giza baliabideek eta ekonomikoek zehazten dute.

Bide honetan, kirol sozializazioari buruz hitz egiten denean, hiru etapa desberdintzen direla ikertu da (Garcia Ferrando et al., 2002): kirolarekiko sozializazioa, non subjektuak kirol kultura bere nortasunan barneratzen duen; sozializazioa kirolan zehar, non jarrerak, baloreak eta gaitasunak kirol-praktikari esker barneratzen diren eta subjektua bere erreferentziazko gizartean murgiltzen den (Lleixa & Soler, 2004). Azkenik, bukaerako fasea kirola uztearen fasea izango litzateke. Hau borondatezkoa edo derrigortua izan daiteke. Fase guztietan familiak faktore gisa jokatzen du.

Hori dela eta, gurasoengandik jasotzen duten babesak ume kirolariaren ibilbidean garrantzia handia duenez, kirol testuinguruan oinarritutako ebaluazio tresnen diseinua ezinbestekoa da.

Laburbilduz, ikerketa ildo hau jarraituz, honetan gehiago sakontzeko beharra ikusi da lan honetan, hau da, jarduera fisikoaren aurrean gurasoek adierazten duten babesaren sexu eta adinaren arabera desberdintzen den. Hori dela eta, testuinguru zehatz bat kontutan harturik babes mota desberdinak aztertuko dira sexu eta adinaren arabera.

2. METODOA

2.1 Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan Ugao LHI-ko 95 ikaslek parte hartu dute. Horietatik 44 (%46.31) gizonezkoak dira eta 51 (%53.69) emakumezkoak. Ikasle guztiek 9-11 urte dituzte. 28 laugarren mailakoak dira (9 urte), 25 bosgarren mailakoak (10 urte) eta 42 seigarren mailakoak (11 urte). Gorputz Hezkuntza orduetatik kanpo ikasle guztiek praktikatzan dute jarduera fisikoa astero behin gutxienez, izan ere, baldintza hau betetzen ez zuten ikasleak ikerketatik at gelditu ziren.

2.2 Tresnak

Gurasoen babesaren ikerketa burutzeko “Cuestionario de Apoyo Parental” (Revuelta, Zulaika & Acebo, 2016) erabili zen. Galdetegi honek 45 item ditu eta horren erantzun formatua 5 graduko Likerten eskalan oinarrituta dago (1=Inoiz ez eta 5=Beti). Bertan, umeei gurasoengandik jasotzen duten babesaren hautematea adieraziko dute 4 dimentsiotan oinarriturik (kondizionala, instrumentala, informazionala eta motibazionala).

Ikasleen jarduera fisikoaren ebaluazioa galdetegi labur baten bitartez burutu zen, non kirol mota, testuingurua eta maiztasuna aztertu zen. Jarduera fisiko boluntarioak soilik aztertzeko helburuarekin (izan ere, hauek soilik erantzuten diete motibazio pertsonalei), erantzuna aisialdian praktikatzan zuten jarduera fisikoan oinarrituta izan zedila eskatu zitzaizkien ikasleei.

2.3 Prozedura

Ikastetxearekin Gorputz Hezkuntzako irakaslearen bidez kontaktuan jarri ginen. Hau zuzendariarekin eta ikasketa buruarekin kontaktuan jarri eta nirekin bilera bat izatea adostu zuten. Bilera horretan proposamena azaldu eta gero baldintza bakarra jarri zidaten: galdetegia euskaraz izatea. Hori horrela, galdetegia euskaratu eta aurkeztu nien.

Behin galdetegia euskaratua item bakoitza azaldu nien, galdetegia pasatzerako orduan arazorik ez izateko. Irakasle bakoitzak 30 minutu erabili zituen galdetegia azaltzeko eta ikasleek betetzeko. Hala ere, ikasleei ez zitzaizkien galdetegi honen helburua zein zen azaldu, emaitzak objektiboagoak izateko asmoz. Behin galdetegi guztiak beteta izanda, eskolara hurbildu nintzen hauek batzeko.

2.4 Analisi estatistikoa

Lehendabizi, aztertutako aldagai bakoitzaren aldagai desberdinen batz bestekoak konparatu dira (gurasoen babes osoa, gurasoen dimentsio instrumentala, gurasoen dimentsio kondizionala, gurasoen dimentsio motibazionala, gurasoen dimentsio informazionala, aitaren babes osoa, aitaren dimentsio instrumentala, aitaren dimentsio kondizionala, aitaren dimentsio motibazionala, aitaren dimentsio informazionala, amaren babes osoa, amaren dimentsio instrumentala, amaren dimentsio kondizionala, amaren dimentsio motibazionala eta amaren dimentsio informazionala). Hortik abiatuta *Kruskal-Wallis* proba ez parametrikoa burutu da, aztertutako maila guztien arteko desberdintasun esanguratsu posibleak lortzeko asmoz. Ondoren, *Mann-Whitney* proba ez parametrikoa ezarri da, bi-bi konparaketa eginez. IBM SPSS Statistics version 24 *software*-a erabili da. Analisi guztiak $p < 0.05$ -eko signifkazio maila oinarritzat hartuz burutu dira.

3. EMAITZAK

Taula honetan (1. Taula) sexuaren eta adinaren (4,5, eta 6 mailak) arabera kirol motan, testuinguruan eta maiztasunan ematen diren desberdintasunak azaltzen dira.

	Sexua		Adina		
	Gizona	Emakumea	4	5	6
Kirol mota					
<i>Taldekakoa</i>	31 ^a	19	15	12	23
<i>Banakakoa</i>	13	32 ^b	13	13	19
Testuingurua					
<i>Eskola</i>	7	6	4	3	6
<i>Kluba</i>	36	34	21	17	32
<i>Bere kabuz</i>	1	11 ^b	3	5	4
Maiztasuna					
<i>Bi egun baino gutxiago</i>	7	7	2	3	2
<i>2-4 egun</i>	35	39	26	22	33
<i>4 egun baino gehiago</i>	2	5	0	0	7 ^{cd}

1. Taula. Desberdintasunak kirol motan, testuinguruan eta maiztasunan sexuaren eta adinaren arabera. Desberdintasun esanguratsuak $p < 0.05$: a>Emakumea; b> Gizona; c> 4; d>5.

Emaitzek erakusten dute kirol mota kontutan hartuz desberdintasun esanguratsua aurki dezakegula gizonen eta emakumeen artean ($p = 0.001$). Kasu honetan, gizonezkoek joera handiago dute taldekako kirolak praktikatzeko. Emakumezkoen joera, aldiz, handiagoa da banakako kirolentzako. Bestalde, testuinguruari erreparatuz gero oreka handi ikus dezakegu. Hala ere, desberdintasun handia dago ($p = 0.028$) bere kabuz praktikatzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Maiztasunari dagokionez, ez ditugu desberdintasun handirik aurkitzen eta baremoak nahiko orekatuak daude bi sexuen artean.

Adinaren arabera, emaitzek oreka handia erakusten dute. Hala ere, 4 eta 6 mailaren ($p = 0.047$) eta 5 eta 6 mailaren ($p = 0.025$) artean desberdintasun esanguratsuak aurki ditzakegu maiztasunaren arloan. Izan ere, 6. mailako ikasleek, orokorrean, maiztasun handiagoz praktikatzen dituzten haien kirolak 4. eta 5. mailakoek baino.

	Adina			Sexua	
	4	5	6	Gizona	Emakumea
Gurasoen babesa	297.32 ± 66.4	309.16 ± 59.81	295.5 ± 62.95	296.15 ± 67.47	302.62 ± 58.95
<i>Dimentsio instrumentala</i>	68.32 ± 17.06	64.4 ± 15.62	64.64 ± 15.38	63.5 ± 16.63	67.52 ± 15.11
<i>Dimentsio kondizionala</i>	61.21 ± 15.55	62.16 ± 14.86	55.28 ± 13.08	59.31 ± 15.39	58.43 ± 13.86
<i>Dimentsio motibazionala</i>	104.64 ± 24.82	115.2 ± 22	109.14 ± 26.41	106.7 ± 26.57	111.74 ± 23.39
<i>Dimentsio informazionala</i>	63.14 ± 15.37	67.4 ± 13.88	66.42 ± 14.24	66.63 ± 15.04	64.92 ± 14
Aitaren babesa	151.84 ± 31.61	150.64 ± 40.16	145.76 ± 36.8	151.2 ± 39.49 ^c	146.68 ± 33.18
<i>Dimentsio instrumentala</i>	33.73 ± 8.6	31.2 ± 10.06	31.28 ± 8.87	32.18 ± 9.61	31.74 ± 8.74
<i>Dimentsio kondizionala</i>	31.23 ± 8.28	30.48 ± 9.69	27.4 ± 8.23	30.74 ± 9.58	28.06 ± 7.83
<i>Dimentsio motibazionala</i>	54.3 ± 11.8	55.32 ± 14.71	53.97 ± 15.24	54.13 ± 14.94	54.68 ± 13.44
<i>Dimentsio informazionala</i>	32.57 ± 7.12	33.64 ± 9.11	33.09 ± 8.13	34.13 ± 8.62	32.2 ± 7.54
Amaren babesa	156.44 ± 32.03	158.52 ± 27.92	150.26 ± 32.49	148.27 ± 33.47	159.44 ± 28.18 ^d
<i>Dimentsio instrumentala</i>	37 ± 8.24	33.2 ± 8.03	33.35 ± 8.46	32.04 ± 9	36.41 ± 7.29 ^d
<i>Dimentsio kondizionala</i>	32.21 ± 7.99	31.68 ± 7.5	27.88 ± 7.02 ^{ab}	29.27 ± 7.85	30.92 ± 7.45
<i>Dimentsio motibazionala</i>	54.37 ± 11.5	59.88 ± 10.57	55.51 ± 13.55	53.88 ± 13.18	58.48 ± 11.18
<i>Dimentsio informazionala</i>	32.89 ± 7.8	33.76 ± 6.33	33.33 ± 6.88	33.27 ± 7.11	33.35 ± 6.91

2. Taula. Babesaren batz-besteak eta desbiderazio estandarrak. Desberdintasun esanguratsuak p<0.05. a< 5; b<6; c >Emakumea; d> Gizona.

Bigarren taula honetan (2. Taula), babesaren azterketa hainbat faktoreen arabera burutu dugu. Lehendik, adinaren arabera aztertu dugu aitarengandik, amarengandik eta guraso biengandik jasotzen duten babesak. Aldi berean, babes hori 4 dimentsioetan banatu dugu: dimentsio instrumentala, dimentsio kondizionala, dimentsio motibazionala eta dimentsio informazionala. Aipatu beharra dago dimentsio motibazionalan babes handiago jasotzen dutela gurasoengandik beste dimentsioetan baino. Era berean, babes osoaren balore maximoak 5. mailan ematen dira. Minimoak, aldiz, 6. mailan. Gainera, dimentsio kondizionalean amarengandik jasotzen duten babesak desberdina da modu esanguratsu batean ($p= 0.023$) taldeen artean. Izan ere, 6. mailakoek 4. eta 5. mailakoekin alderatuta babes gutxiago jasotzen dute amarengandik dimentsio honetan.

Bigarrenik, sexuaren arabera aztertu dugu aitarengandik, amarengandik eta guraso biengandik jasotzen duten babesak. Era berean, lehen egin dugun moduan, 4 dimentsioen arteko korrelazioa ere aztertu da. Babes osoaren babes maximoak emakumeengan eman da, neurri txiki batean gizonekin alderatuz. Desberdintasun esanguratsurik egon ez arren, orokorrean, gizonezkoek babes gehiago jasotzen dute aitarengandik emakumezkoek baino. Eta alderantziz. Izan ere, emakumezkoek babes gehiago jasotzen dute amarengandik gizonezkoek baino. Gainera, dimentsio instrumentalean amarengandik jasotzen duten babesak desberdina da modu esanguratsu batean ($p= 0.007$) gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

	Kirol mota		Testuingurua			Maiztasuna		
	Taldekakoa	Banakakoa	Eskola	Kluba	Bere kabuz	2 egun baino gutxiago	2-4 egun	4 egun baino gehiago
Gurasoen babes	303.86 ± 58.73 ^a	294.93 ± 67.35	281.07 ± 59.13	299.15 ± 64.16	322.5 ± 55.37	319.42 ± 68.7	300.07 ± 61.92	274.71 ± 68.75
Dimentsio instrumentala	66.42 ± 15.28	64.82 ± 16.64	60.92 ± 16.22	65.3 ± 16.05	72.91 ± 12.89	73.57 ± 15.56	65.54 ± 15.92	59.14 ± 14.34
Dimentsio kondizionala	60.68 ± 13.72	56.8 ± 15.25	52.69 ± 14.22	59.72 ± 14.33	60.33 ± 15.52	63.85 ± 17.4	58.97 ± 14.26	52.28 ± 14.44
Dimentsio motibazionala	111.08 ± 23.93	107.55 ± 26.09	104.92 ± 21.89	108.52 ± 25.67	119.41 ± 22.51	113.71 ± 23.99	109.51 ± 24.57	103.85 ± 32.19
Dimentsio informazionala	65.68 ± 13.98	65.75 ± 15.09	62.53 ± 14.26	65.6 ± 14.96	69.83 ± 11.15	68.28 ± 14.38	66.03 ± 14.5	59.42 ± 14.17
Aitaren babes	152.48 ± 33.81	144.63 ± 38.46	144.69 ± 36.67	149.33 ± 35.49	150 ± 41.69	146.42 ± 50.77	150.92 ± 34.27	126.85 ± 38.95
Dimentsio instrumentala	32.95 ± 8.96	30.81 ± 9.23	30.61 ± 10.53	32.08 ± 8.85	32.58 ± 9.63	32.42 ± 11.65	32.37 ± 8.95	26.57 ± 7.48
Dimentsio kondizionala	30.65 ± 8.39	27.79 ± 8.97	27 ± 8.45	30.05 ± 8.51	27.5 ± 10.33	28.28 ± 12.07	29.84 ± 8.46	24.14 ± 7.69
Dimentsio motibazionala	55.46 ± 13.35	53.27 ± 14.91	53.92 ± 13.29	54.11 ± 14.17	56.75 ± 15.29	53.85 ± 17.26	55.08 ± 13.4	47.57 ± 18.57
Dimentsio informazionala	33.4 ± 7.69	32.75 ± 8.55	33.15 ± 8.27	33.07 ± 8.06	33.16 ± 8.63	31.85 ± 10.89	33.6 ± 7.7	28.57 ± 8.94
Amaren babes	154.44 ± 29.67	154.09 ± 32.91	136.38 ± 25.54	154.48 ± 32.19 ^b	172.5 ± 17.61 ^b	173 ± 22.91	153.18 ± 31.23	147.85 ± 33.59
Dimentsio instrumentala	34.12 ± 8.18	34.68 ± 8.66	30.30 ± 6.68	34.12 ± 8.69	40.33 ± 4.16 ^{bc}	41.14 ± 4.52 ^{de}	33.96 ± 8.44	32.57 ± 8.3
Dimentsio kondizionala	30.64 ± 7.48	29.62 ± 7.86	25.69 ± 6.25	30.52 ± 7.78 ^b	32.83 ± 6.64 ^b	35.57 ± 6.7	29.86 ± 7.62	28.14 ± 7.47
Dimentsio motibazionala	56.85 ± 11.69	55.79 ± 13.06	51 ± 10.39	56.26 ± 12.72	62.66 ± 9.18 ^b	59.85 ± 9.68	56.05 ± 12.23	56.28 ± 16.26
Dimentsio informazionala	32.94 ± 6.82	33.73 ± 7.18	29.38 ± 7.06	33.47 ± 7.08 ^b	36.66 ± 3.91 ^b	36.42 ± 4.72	33.25 ± 7.18	30.85 ± 5.63

3. Taula. Babesaren batz-besteak eta desbiderazio estandarrik. Desberdintasun esanguratsua $p < 0.05$. a) Banakakoa; b) Eskola; c) Kluba; d) 2-4 egun; e) 4 egun baino gehiago.

Hirugarren taula honetan (3. Taula), babesaren azterketa kirol motaren, testuinguruaren eta maiztasunaren arabera burutu dugu. Aldi berean, babes hori 4 dimentsioetan banatu dugu, aurretik egin dugun bezala. Lehendabizi, kirol motaren arabera aztertu dugu babesa (taldekako kirolak vs banakako kirolak). Dimentsioetan desberdintasun esanguratsurik aurkitu ez arren, taldekako kirolak praktikatzen duten gazteek banakako kirolak praktikatzen dutenek baino babes handiago jasotzen dute, neurri txiki batean.

Ondoren, babesa praktikatuako testuinguruaren arabera aztertu dugu. Horretarako, lagina 3 multzotan banatu dugu: eskola bertan praktikatzen duten kirolariak, klub batean praktikatzen dutenak eta bere kabuz praktikatzen dutenak. Gurasoen babes maximoa bere kabuz praktikatzen duten kirolarien artean ematen da eta babes minimoa eskolan praktikatzen dutenen artean. Amarengandik jasotzen duten babesari dagokionez desberdintasun esanguratsuak ($p= 0.020$) aurki ditzakegu 1 taldea (eskolan praktikatzen dutenak) eta 2 taldearen artean (klub batean praktikatzen dutenak), izan ere, 2 taldeak 1 taldeak baino askoz babes gehiago jasotzen du amaren partetik. Era berean, desberdintasun esanguratsua dago 3 eta 1 taldeen artean, bere kabuz praktikatzen duten kirolariak eskolan praktikatzen dutenek baino babes gehiago jasotzen dutelako amarengandik.

Bestetik amaren dimentsio instrumentalan, kondizionalan, motibazionalan eta informazionalan ere desberdintasun esanguratsuak ematen dira ($p= 0.002$; $p= 0.035$; $p= 0.036$ eta $p= 0.024$). Dimentsio intrumentalari dagokionez desberdintasunak 1-3 eta 2-3 taldeen artean ematen dira. Dimentsio kondizionalan 1-2 eta 1-3 taldeen artean, dimentsio motibazionalan 1-3 taldeen eta azkenik, dimentsio informazionalan, 1-2 eta 1-3 taldeen artean.

Emaitzekin bukatzeko, maiztasunaren arabera aztertu dugu babesa. Hiru multzotan banatu dugu lagina: 2 egun baino gutxiago praktikatzen duten kirolariak (1), 2-4 egun artean praktikatzen dutenak (2) eta 4 egun baino gehiago praktikatzen dutenak (3). Eremu honetan desberdintasun esanguratsuak ($p= 0.048$) amaren dimentsio instrumentalean aurkitu ditugu 1-2 eta 1-3 taldeen artean. Gainera, neurri txiki batean, gutxien praktikatzen duten kirolariak babes gehiago jasotzen dute gurasoengandik gehien praktikatzen dutenak baino.

4. EZTABAIDA

Seme-alabek gurasoengandik jasotzen duten babesak ume kirolariaren ibilbidean garrantzia handia duenez, kirol testuinguruan oinarritutako ebaluazio tresnen diseinua ezinbestekoa da (Gimeno Marco, Gomez Bahillo, & Marcen Muño, 2012). Hori dela eta, ikerketa honetan gehiago sakontzeko beharra ikusi da eta jarduera fisikoaren aurrean gurasoek adierazten duten babesaren sexu eta adinaren arabera desberdintzen den aztertu da. Hori horrela, testuinguru zehatz bat kontutan harturik babes mota desberdinak aztertu dira sexu, adinaren, kirol motaren, testuinguruaren eta maiztasunaren arabera.

Orokorrean, seme-alabek amarengandik jasotzen duten babesaren kasuan ikusi ditugu desberdintasun esanguratsurik nagusienak, izan ere, menpeko aldagaiak aldatu ahala baloreak era nabarmen batean aldatzen ziren. Gainera, umeak nagusituz doazen heinean, jarduera fisikoaren praktika handituz doala ondoriozta dezakegu.

Umeek, orokorrean, amarengandik jasotzen dute babes gehiena jarduera fisiko edota kirola praktikatzeko dutenean. Hau, betidanik existitu izan diren balore tradizionalekin lotu dezakegu, izan ere, amak zaintzaren eta babesaren ardura izan du antzinatean (Suárez Viilegas, 2012). Hori horrela, paper hori kirolaren esparrura transmititu izan da ere, jasotako emaitzetan amaren babesaren aitaren babesaren baino gehiago ematen delarik. Honekin batera, emakumearen enpatizatze gaitasuna lotu dezakegu. Hau da, emakumeek beste pertsonekin enpatizatze gaitasun handiagoa dute gizonek baino eta hori arrazoi bat izan daiteke haien seme-alabeei babesaren transmititzerako orduan ematen diren desberdintasunak ikusita (Tomova, Von Dawans, Heinrichs, Silani, G., & Lamm, 2014).

Balore tradizionalekin jarraituz, aipatu beharra dago emakumeek amarengandik jasotzen dutela babes gehiago, eta gizonezkoek, aldiz, aitarengandik. Hau, gaur egun jarduera fisikoei edota kirolei ematen zaien estereotipoengatik izan daiteke. Zorionez, emakumearen presentzia kirol munduan gero eta arruntagoa den arren, tamalez, oraindik kirol edota jarduera fisiko zehatz batzuk etiketak daramatzate bizkarrean eta gehien bat gizonengatik edo emakumeengatik praktikatuak dira (Rodriguez Teijeiro, Martinez Patiño, M.J., & Mateos Padorno, C., 2004). Izan ere,

normalean, gizonezko edo emakumezko garen heinean kirol zehatz batzuk edo besteak praktikatzen eta ikustera behartua gaude.

Kirol motari erreparatuz gero, espero ez ziren emaitzak aurkitu dira. Izan ere, banakako kirolak praktikatzen dituzten umeez taldekakoak praktikatzen dituztenak baino babes gutxiago jasotzen dute orokorrean, desberdintasun esanguratsurik egon ez arren. Talde kiroletan, umeez gurasoengandik gain, taldekideengandik jaso dezakete babes eta banakako kiroletan, aldiz, ez. Hori horrela, banakako kiroletan gurasoengandik jasotzen zuten babes handiagoa izango zela espero zen, taldekideen babes hori gurasoek bere gain hartuz.

Testuingurua kontutan hartuz gero, bere kabuz kirola edota jarduera fisikoa praktikatzen duten umeez babes handiagoa jasotzen dute gurasoengandik eskolan edota kluban praktikatzen dutenak baino. Emaitza hau lortzea ulergarria da, izan ere, aurreko kasuaren antzera, bere kabuz praktikatzen duten umeez ez dute entrenatzailearen edota kirol gidari baten babesik jasotzen eta beraz, paper hori gurasoek betetzen dute askotan.

Eztabaidarekin amaitzeko, maiztasuna aztertu behar da. Aldagai independente honen kasuan harrigarriak izan dira lortutako emaitzak, izan ere, umeez gero eta kirol edota jarduera fisiko gutxiago praktikatzen, orduan eta babes handiagoa jasotzen dute gurasoen aldetik. Hori horrela, De la Torre-Cruzek (2017) aipatutakoarekin ez dute bat egiten lortutako emaitzek.

5. ONDORIOAK

Lan hau egiteak, lehendik ez nituen ezagutza aberatsak barneratzea suposatzen dit. Batetik, lan handia izan da txostenaren nondik norakoak adieraztea eta eskema egitea. Bibliografiaren bilaketa egiterako orduan arazo batzuk izan genituen, izan ere, orain arte egindako ikerketa guztiak ez zuten gure betebeharrak eta nahiak asetzen.

Haurrentzat beharrezkoa da etxeko gertutasuna eta babes sentitzea, beraiek ulertzea eta gurasoentzat garrantzitsuak direla sentitzea. Ezezaguna, erraldoia eta maiz iluna den mundua azaltzen hasia zaie begi aurrean (kirola eta jarduera fisikoaren mundua, askotan eta zoritxarrez, oso ezezaguna da) eta

konfiantza giroan lasaitasunezko uneak igarotzea ezinbesteko zaie. Ezjakintasuna, urduritasuna, beldurra, bazterkeria, segurtasun eza... bezalako sentimendu ezkorrek poza, norberarekiko konfiantza eta lasaitasuna bilakatu daitezke gurasoen babes eta goraipamena lortuz gero. Hori dela eta, ezinbesteko izan dut ikerketa hau abian jartzea eta nire inguruan dudan testuinuguran murgiltzea.

Ez da erreza heldua izatea, baina, askotan ahaztu egiten dugun arren, ez da erreza ere haurra izatea. Helduon betebeharrak asko dira baina baita hurrek egunerokotasunean gainditu beharreko erronkak ere. Horregatik, gurasoen eta seme-alaben artean dagoen mundura murgiltzea ausartu naiz, eta jarduera fisiko arloan haien arteko harremanak nolakoak diren ikertu.

Laburbilduz, lan hau egiteak izugarritzko aurrera pausua izan da nire barne ezagutza pertsonalerako. Gainera, gehiago irakurtzeko eta ikasteko gogoekin gelditu naiz, beraz, ziur nago gradua amaitu eta gero honi buruzko artikulu gehiago irakurriko ditudala, nire ezagutza handitzeko asmoz. Era berean, etorkizunean irakasle bezala aritu ezker, teoria hau praktikara bideratzeko ahalegin handiak egingo nituzke, gurasoen babes gaiari garrantzia handiagoa eman nahian. Ezingo nuke Gradu Amaierako Lan hau amaitu nire tutorea izan den Ibon Etxeazarrari eskerrak eman gabe. Hilabete luze hauetan gidari ezin hobea izan da eta arazoei aurre egiteko izugarritzko laguntza helarazi dit.

6. MUGAK

Gradu Amaierako Lan honetan hainbat muga izan ditugu lanaren hainbat fasetan. Batetik, hasieran ez genekien lana modu egoki batean nola bideratu, izan ere, orain arte ez dira guraso-babesaren esparruan ikerketa asko egin. Hori dela eta, erreferentzia nagusitzat Revuelta et al. 2017 lana hartu dugu.

“Cuestionario de Apoyo Parental”-a behin izanda, eskolan gure ikerketa aurkeztea pentsatu genuen, beraz, Ugao LHI-rekin bilera bat adostu nuen. Bertan, ikerketa aurkeztu eta nire helburuak azaldu nituen. Eskolaren partetik ez nuen inolako trabarik izan, hala ere, galdetegia euskaraz pasatzera derrigortzen ninduten, beraz hau euskaratu nuen. Hori dela eta, “Cuestionario de Apoyo Parental” galdetegia birmoldatuta edo euskaratuta dagoela esan dezakegu.

Behin ikasleen emaitzak jasota, hauek aztertzeari ekin genion. Lehenengo galdetegi honetan sexuaren eta adinaren arabera bakarrik aztertu genituen, ez baitgenien ikasleei zer motatako kirola praktikatzen duten, zer testuinguruan eta maiztasuna galdetu. Hori horrela, ez genituen desberdintasun eta ondorio esanguratsurik aurkitu. Horregatik, bigarren galdetegi bat prestatu genuen non kirol mota, testuingurua eta maiztasunaren aldagaiak agertzen ziren. Bigarren galdetegi honetan aurrekoan baino desberdintasun gehiago aurkitu genituen, beraz, azken hau erabili genuen oinarri gisa.

Datuen analisia eta konparaketa egiterako orduan mugak izan genituen ere. Lehendabizi “Prueba T para muestras independientes” eta “ANOVA de un factor” erabili genituen. Baina laginaren kopuru txikia ikusita erabaki zen “Pruebas no paramétricas” erabiltzea. Atal berri honen barruan “K muestras independientes” eta “2 muestras independientes” hartuz. Hori horrela, datuen analisi eta konparaketa egokiagoa burutu genuen. Hori dela eta, aipatu beharra dago lan honetan aurkitu dugun mugarik handiena laginaren kopurua izan dela.

7. IKERKUNTZAK ETORKIZUNEAN

Azkenengo 25 urteetan, kirol-psikologiaren atal bat gurasoen eta entrenatzaileen eragina ikertzeraz bideratu da, izan ere, gurasoak umeen eta nerabeen eragile sozial handienak dira. Gurasoek umeengan duten eragina eta haien babesaren oso garrantzitsua den arren ez ditugu gure helburua betetzen zuten ikerketa asko aurkitu, izan ere, babes hau aztertzeko edota kuantifikatzeko metodo desberdinak erabili izan dira. Gure kasuan babesaren sexuaren, adinaren, kirol motaren, testuinguruaren eta maiztasunaren arabera aztertu dugu eta ez dugu ikerketarik aurkitu 5 faktore horien arabera aztertzen duenik.

Gurasoen parte hartze jarrai eta handiaren eraginez, umei eta nerabeei hobetze jarrerak transmititzeko orduan ondorio handia izan dezakete. Hala ere, azken bolada honetan askotan ikusi dugu komunikabideetan guraso askoren jarrerak oso zalantzazkoak direla. Gurasoak umeen kirol praktikan dena emanda ikustea gero eta ohikoagoa da, eta gehienetan praktika hauek lehia moduan ematen direnez, gurasoek erakusten duten lehiakortasun hori era bortitz eta biolento batean ematen da.

Hori horrela, ezinbestekoa dugu adituek gero eta gehiago ikertzea gurasoek haien seme-alabei helarazten dieten babesari buruz. Baina ikerketa horiek ezin dira bakarrik aditu edota profesionalen artean gelditu, izan ere, emaitzak plazaratu behar dira familiak ikus ditzaten. Horrela, agian, emaitzak edota haien jarrerak ikusita, gaur egungo egoera aldatzea lortuko genuke.

8. ERREFERENTZIAK

- Amenábar, B., Sistiaga, J.J., & García, E. (2008). Revisión de los distintos aspectos de la influencia de los padres y las madres en la práctica de la actividad física y el deporte. *Apunts Educación Física y Deportes*, 93, 28-35.
- Ara, I., Vicente-Rodriguez, G., Moreno, L., Gutin, B., & Casajus, J. (2009). La obesidad infantil se puede reducir mejor mediante actividad física vigorosa que mediante restricción calórica. *Apunts Medicina de l'Esport*, 163, 111-118.
- Babkes, M. L., & Weiss, M.R. (1999). Parental influence on children's cognitive and affective responses to competitive soccer participation. *Pediatric Exercise Science*, 11(1), 44-62.
- Beets, M. W., Vogel, R., Chapman, S., Pitetti, K. H. & Cardinal, B. J. (2007). Parent's social support for children's outdoor physical activity: Do weekdays and weekends matter? *Sex Roles*, 56 (1-2), 125-131.
- Brustad, R. J. (1988). Affective outcomes in competitive youth sport: The influence of intrapersonal and socialization factors. *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 10, 307-321.
- Castillo, I., & Balaguer, I. (2001). Dimensiones de los motivos de práctica deportiva de los adolescentes valencianos escolarizados. *Apunts Educación Física y Deportes*, 63, 22-29.
- Contreras, O., De La Torre, E., & Velázquez, R. (2001). *Iniciación deportiva*. Madrid: Síntesis.
- Cordente, C. A., García, P., & Sillero, M. (2008). ¿Tienen los padres parte de responsabilidad en la salud presente y futura de sus hijos adolescentes? *Revista internacional de derecho y gestión del deporte*, 1, 36-48.
- Côté, J. (1999). The influence of the family in the development of talent in sport. *The Sport Psychologist*, 13, 395-417.

- Cutrona, C.E. & Russell, D.W. (1990). Type of social support and specific stress: Toward a theory of optimal matching. *Social support: An interactional view*, 319-366.
- De Knop, P. (1993). El papel de los padres en la práctica deportiva infantil. Málaga: Unisport.
- De la Torre-Cruz, J. (2017). Relaciones entre el apoyo parental, autoeficacia y actividad física en adolescentes. *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 2(1), 459-467.
- Escartí, A., & Gutiérrez, M. (2006). Influencia de padres y profesores sobre las orientaciones de meta de los adolescentes y su motivación intrínseca en educación física. *Revista de Psicología del Deporte*, 15(1), 23-35.
- Fernández Moyano, J. (2012). *La influencia parental en la motivación y participación de los alumnos en actividades físico-deportivas en edad escolar*. Trabajo fin de Máster.
- Fraile, A., & De Diego, R. (2006). Motivaciones de los escolares europeos para la práctica del deporte escolar. *Revista Internacional de Sociología*, 64, 85-109.
- Fredricks, J. A., & Eccles, J. S. (2005). Family socialization, gender and sport motivation and involvement. *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 27, 3-31.
- García, M. (2006). Veinticinco años de análisis del comportamiento deportivo de la población española (1980-2005). *Revista Internacional de Sociología*, 64 (44), 15-38.
- García-Ferrando, M., Lagardera, F. & Puig, N. (2002). *Cultura deportiva y socialización. Sociología del Deporte*. Madrid: Alianza Editorial.
- Gimeno Marco, F., Gomez Bahillo, C. & Marcen Muñoz, C. (2012). Evaluación del constructo "Apoyo Parental" en jóvenes deportistas de competición. *Revista de Investigación Social*, 9, 209-225.
- Gottlieb, N.H. & Chen, M.S. (1985). Sociocultural correlates of childhood sporting activities: their implication of heart health. *Social Science Medicine*, 21, 533-539.

- Gutiérrez, M. (2000). Actividad física, estilos de vida y calidad de vida. *Revista de Educación Física* 77, 5-14.
- Gutiérrez, M. (2004). El valor del deporte en la educación integral del ser humano. *Revista de Educación* 335, 105-126.
- Gutiérrez, M., Carratalá, V., Guzmán, J.F., & Pablos, C. (2010). Objetivos y manifestación de valores sociales y personales en el deporte juvenil según deportistas, padres, entrenadores y gestores. *Apunts Educación Física y Deportes*, 101, 57-65.
- Hamlin, M., & Hellemans, J. (2003). Child and parent perceptions, attitudes and influences affecting children's participation in physical activity. *Journal of Sports Sciences*, 21, 340-365.
- Heitzler, C. D., Martin, S. L., Duke, J. & Huhman, M. (2006). Correlates of physical activity in a national sample of children aged 9-13 years. *Preventive Medicine*, 42, 254-260.
- Hellstedt, J.C. (1995). Invisible players: A family system model. In S.M. Murphy, *Sport Psychology Interventions* (pp.117-146). Champaign, IL: Human Kinetics.
- King, K. A., Tergerson, J. L. & Wilson, B. R. (2008). Effect of social support on adolescents' perceptions of and engagement in physical activity. *Journal of Physical Activity and Health*, 5, 374-384.
- Kotan, Ç., Yaman, Ç., & Hergüner, G. (2009). The effects of school and family factors on sports activities for sports students in primary schools: a case study of Sakarya. *Beden Eğitimi ve Spor Bilimleri Dergisi*, 3(1), 49-58.
- Latorre, P. A., Gasco, F., Garcia, M., Martinez, R. M., Quevedo, O., Carmona, F. J., Rascon, P. J., Romero, A., Lopez, G. A. & Malo, J. (2009). Análisis de la influencia de los padres en la promoción deportiva de los niños. *J Sport Health Res*, 1(1), 12-25.
- Leo, F. M., Sánchez, P.A., Sánchez, D., Amado, D., & García, T. (2009). Interacción entre la percepción del comportamiento de los padres y los comportamientos

- deportivos en edades de iniciación. *Psicología de la Actividad Física y del Deporte*, 2, 55-62.
- Lleixá, T. & Soler, S. (2004). *Actividad física y deporte en sociedades multiculturales. ¿Integración o segregación?*. Cuadernos de Educación, 45. Barcelona: ICE y Editorial Horson.
- McCullagh, P., Matzkanin, K., Shaw, S. D. & Maldonado, M. (1993). Motivation for participation in physical activity: A comparison of parent-child perceived competence and participation motives. *Pediatric Exercise Science*, 5, 224-233.
- McElroy, M.A., & Kirkendall, D.R. (1980). Significant others and professionalized sport attitudes. *The Research Quarterly for Exercise and Sport*, 51, 645-653.
- Mendoza, R. (2000). Diferencias de género en los estilos de vida de los adolescentes españoles: implicaciones para la promoción de la salud y para el fomento de la actividad físico-deportiva. En *Educación Física y Salud. Actas del Segundo Congreso Internacional de Educación Física* (pp. 765-790). Cádiz: FETEUGT-Cádiz.
- Moreno, J. A., Hellín, P., & Hellín, M.G. (2006). Pensamiento del alumno sobre la educación física según la edad. *Apunts Educación Física y Deportes*, 85, 28-35.
- Moreno, J. A., Rodríguez, P.L., & Gutiérrez, M. (2003). Intereses y actitudes hacia la Educación Física. *Revista Española de Educación Física*, 11(2), 14-28.
- Overman, S. & Rao, V. (1981). Motivation for and extent of participation in organized sports by high school seniors. *Research Quarterly*, 52, 228-237.
- Power, T.G. & Woolger, C. (1994). Parenting practices and age group swimming: A correlational study. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 65, 59-66.
- Reverter, J., Montero, D., Hernandez, V., Jove, C. & Coiduras, J. (2013). Parental attitudes towards extracurricular physical and sports activity in school-age children. *Journal of Human Sport and Exercise*, 8(3), 861-876.
- Revuelta, L., Acebo, N. & Zugazagoitia, A. (2017). Apoyo parental para la práctica físico-deportiva. Diferencias en función del sexo y nivel de práctica. *Sportis*.

Revista Técnico-Científica del Deporte Escolar, Educación Física y Psicomotricidad 2(3), 272-285.

Revuelta, L., Infante G. & Axpe, I. (2014). Contexto familiar e implicación en el ámbito físico-deportivo durante la adolescencia. *International Journal of Develompental and Educational Psychology* 6(1), 311-319.

Ries, F. (2009). *Actividad físico-deportiva en adolescentes de Sevilla y Luxemburgo. Influencia de factores personales, parentales y situacionales percibidos sobre la intención y la práctica*. Tesis Doctoral. Universidad de Sevilla.

Rodriguez Teijeiro, D., Martinez Patiño, M.J., & Mateos Padorno, C. (2004). Identidad y estereotipos de la mujer en el deporte. Una aproximación a la evolución histórica. *Revista de Investigación de Educación*, 2, 109-126.

Sánchez, F. (2001). Perspectivas y orientaciones para el deporte escolar. En V. Carratalá, J. F. Guzmán, & M. A. Fuster (Coord.), *Nuevas aportaciones al estudio de la actividad física y el deporte* (pp. 175-187). Valencia: Universitat de València.

Scanlan, T. K., & Lewthwaite, R. (1984). Social psychological aspects of competition for male youth sport participants: I. Predictors of competitive estrés. *Journal of Sport Psychology*, 6, 208-226.

Scanlan, T.K., Stein, G.L., & Ravizza, K. (1991). An in-depth study of former elite figure skaters: III. Sources of stress. *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 13(2), 103-120.

Sephard, R.J. & Godin, G. (1986). Behavioral intentions and activity of children. Children and exercise. *International Series on Sports Sciences*, 12(17) 1.3-1.9.

Suárez Villegas, J.C. (2012). La maternidad como arquetipo de la ética del cuidado. Reflexión crítica sobre las identidades de género en la comunicación. *Revista Internacional de Culturas y Literaturas*, 1, 92-94.

Sunnegardh, J., Bratteby, L., & Sjolín, S. (1985). Physical activity and sports involvement in 8 and 13 year old children in Sweden. *Paedriatica Scandinavia*, 74, 904-912.

- Svoboda, B. & Patriksson, G. (1996). Socialización. *La función del deporte en la sociedad* (pp. 99-152). Madrid: Consejo Superior de Deportes.
- Thompson, A. M., Humbert, M. L. & Mirwald, R. L. (2003). A longitudinal study of the impact of childhood and adolescent physical activity experiences on adult physical activity perceptions and behaviors. *Qualitative Health Research*, 13, 358-377.
- Timperio, A. F., Van Stralen, M. M., Brug, J., Bere, E., Chinapaw, M. J., De Bourdeaudhuij I., Jan, N.,... and on behalf of the energy consortium (2014). Direct and indirect associations between the family physical activity environment and sports participation among 10–12 year-old European children: testing the EnRG framework in the ENERGY project. *International Journal of Behavioral Nutrition and Physical Activity*, 11(82).
- Tomova, L., Von Dawans, B., Heinrichs, M., Silani, G., & Lamm, C. (2014). Is stress affecting our ability to tune into others? Evidence for gender differences in the effects of stress on self-other distinction. *Psychoneuroendocrinology Science*, 43, 95-104.
- Weiss, M.R., Wiese, D.M., & Klint, K.A. (1989). Head over heels with success: The relationship between self-efficacy and performance in competitive youth gymnastics. *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 11, 444-451.